

## J. DUVOISIN KAPITAINAREN LAN EZEZAGUN BATI ZENBAIT OHAR

Donostia, 1987-XI-27

Juan San Martin

Gure literaturaren historian zerk eduki du inork igarri gabe estalirik Duvoisinin *Baigorriko zazpi-liliak*? Galdera bat baino gehiago egina dut horretaz nere buruari. Eta, gaurkoan, zenbait ohar eskaini nahi ditut iragan otsailean liburu honi taxutu nion aintzin solasaren jarraipenez, zeren ondo merezia bait du mende bat geroztik datorkion zabalkundezko ezagupena. Ez bait dugu holako prosarik sobera.

Iragan Urtarrilean eman zidan Piarres Charritton euskaltzain adiskideak Duvoisin kapitainaren lan ezezagun honen berria. Handik laster, berak eta Jean Haritschelharrek eskuratu zizkidaten Euskal Erakustokian duten *Revue de Basses-Pyrénées et des Landes* aldizkariko zenbait orrialde (1884-1885. urteetakoak) fotokopiatuak. Azter nitzan utzi zizkidaten, baina ez da izan beren laguntzarik gabekoa, bereziki P. Charrittonen aldetik. Beraz, bijoaz berentzat nere eskerrik kartsuenak.

Aintzin solasaren azken partean nionez, Charritton ohartu zen Azkue eta Broussainen arteko elkarridazketan (1). Broussainek 1911ko Azaroaren 20 eta 29ko gutunetan aipatzen ziola *Baigorriko zazpi-liliak*. Gainera, lehen gutunean zionez, berriz argitaratuak izan omen ziren Donapaleuko *Journal de Saint-Palais* aldizkarian (2). Baina es dut izan hori ziurtatzeko aurkerarik. Beraz, bada oraindik zer aztertu. Azkuek, Abenduaren 4koan agertu zion ipuinok eskuratu nahia eta Urtarrilaren 1ean idazten zion Broussainek, bizkaieraz, honako hau agertuz: “Duvoisin’ren ipuinak (*Baigorriko zazpi-liliak*) ez dodaz aztu. Eskuetan daukadaz, baño atzenengo egun onetan erazopeturik, ez dodaz oraindiño osoro aratu. Burutik buru irakurri-ta, zenbait egunen buruko bialduko deusudaz, Urquijo’ren bitartez. Bera laister juango da Bilbo’ra edo norbait idoroko dau, bere ordez ipuin orrek zuri eroateko” (3).

---

(1) P. CHARRITTON, *Resurrección María de Azkue eta Pierre Broussainen arteko elkarridazketa*. *Iker-4*, 1986.

(2) P. CHARRITTON, aipatutako lanean, 299. orr.

(3) P. CHARRITTON, aipatutako lanean, 299. orr.

Iritsi ote zen Azkueren eskuetara? Ezetz esango nuke. Ez baitu inon aipatzen eta bere liburutegian ere ez dira aurkitzen aldizkariok. Bai ordea Urkixorenean. Hala agertzen da klasifikaturik duela hiru urte Urkixo Mintegiak, Julio Urkixo ber-beraren oharrez, berrargitaratu zuen Julien Vinson-en Bibliografiaren 769. orrialdean (4).

Dirudienez, Urkixo ez zen ohartu bi hizkuntzetan argitaratua zen lan hura Duvoisinena zenik, ez eta ere frantsesezkoa euskarazkoaren itzulpena zenik, bestela oharren bat egingo zion. Baina, bestalde, itxura denez, bere eskuetara ez zen iritsi Broussainek Azkueri eskaini ziona; bestela, harrigarria litzateke Julio Urkixok ez aintzat hartzea.

Urkixok, soil soilik, Vinsoni jarraitzen dio. *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes*, Parisen 1883tik atera zena Paben urte bat lehenago atera zen *Revue historique du Béarn et de la Navarre*-ren jarraipenezkoa zela. Horrek erakusten digu, hutsa, hutsik egotekoan, Julien Vinsonen bibliografiakoa dela.

Bestalde, Vinsonen katalogatze horretan, bereziki aldizkarietara dagozkienetan, ez da harrigarria holako hutsak agertzea, aldizkariok berez dakarten sakabanatze joeragatik. Baina, ulerkaitza zera da, ipuin bakoitzaren tituluak ematea eta egilearenik ez. Gure mitologiako Tartaro oso ezaguna zuen Vinsonek, zeren horietariko hiru bildu bai zituen *Le Folklore du Pays Basque* liburuan (5). Gainera, liburu horren hitzaurrean aipatzen du Pabeko *Album pyrénéen* zeritzanean, 1841ean, artikulua idatzi zituela J. Duvoisinek.

Nik dakidanez, Jon Bilbao izan da lehenengoz ohartu zena *Les sept fleurs de Baïgorry* euskaraz eta frantsesez idatzia zela eta bere egilea Jean Duvoisin (6).

Lehenago zatika argitaratutako lan honek liburu batean bildurik ematea merezi zuen, eta hala egin dut. Prestaketak bukatzen ari nintzela izan nuen Patxi Altuna adiskideak hain txukun argitaratu duen *Laborantzako liburua*-ren berria; hitzez hitz zehatz azterturik, hizkuntz jakintza mailarako benetan baliagarria. Nere argitalpen honetan ordea, ez dut holako pretentsiorik izan. Hitzaurrean esango nuen bezala, *Baigorriko zazpi-liliak*, hizkuntz jakintza aldetik ez noski, baina literatur balioz hari zorrik gabea iduritzen zitzaidala, fikzio edo sorkundezko lanak euskararen alorrean hain urri ditugunez gero.

(4) *Bibliographie de la Langue Basque*, Donostia, 1984. Vinsonek 1898an Parisen argitaratu zuena bera Urkixoren oharrez.

(5) JULIEN VINSON: *Le Folklore du Pays Basque*, Paris, 1883 (*Les Littératures populaires de toutes les nations* saileko XV. liburua), 46-50. orrialdeetan.

(6) JON BILBAO, *Eusko Bibliographia*, III, 75. orr. (1973).

Liburu polit honetan, fikzioz gainera lapurtar idazleen prosa jatorra ageri da. Aurten bete dira ehun urte Jean Arbelbidek *Bokazionea* Lillen argitaratu zuenetik (7). Aspaldi dela, hura eskuratzean ohartu nintzen zein naharo erabiltzen duten lapurtarrek kontatzeko era argi bezain eredugarria, estilo aldetik. Hori iduritu zitzaidan J.-B. Elizanbururen *Piarres Adame* (1888) irakurtzean ere, eta orain Duvoisin *Baigorriko zazpiliak* (1884-1985). Horietatik badugu zer ikasirik. Horien irakurketazko ezagutza gomendatuko nieke beren zilborra begira dabiltzan gipuzkoarrei. Idazten, lapurtarrak, bi mende lehenago hasi zirelako ote?

Oraindik ere, horien kutsua nabari da gaur egungoetan. Besteak beste, horregatik argitara genituen J. St.-Pierrenen "Ikusiak" *Egan*-en (8), Holako erraztasunez iduritzen zaizkigu Jean Etchepare mirikuaren lanak, Charritonen prestaketari esker (9).

Liburu honetan aurkitu dut deabruak euskararik ikasi ezin zuenaren lehen aipamena. Tartaroak harzuloan gorderik zuen gizon bat salbatzeko euskaldunek laguntza eskaintzean, honela zioten: "mintzatuko gare debruak berak ezin ikasi duen mintzaiatz" (ikus 42. orrialdean). Uste hori oso zabaldua zen nonbait, Julien Vinson, Rodney Gallop eta Philippe Veyrin-ek beren liburuetan diotenez. R. M. Azkuek ere hala jaso zuen Donibane-Garazin. Baina 1611.urtean Hondarribian sorginak epaitzean, lekuko batek aitortu zuen, Jaizkibel mendiko akelarrean deabrua gaskoinez mintzatu zitzaizela Donostia eta Pasaiakoei, eta euskaraz Irun eta Hendaia-koei, Serapio Mujikak aurkitu zuen agiriak azaltzen digunez (10). Beraz, lekukotasun horren arabera hausten da lehengo uste hura. Euskara ikasi ezinezko hizkuntza izatearen uste hura ongi zetorkien ikasi nahi ez zutenei eta holako leloekin kalterik asko egin digute.

Tartaroaren pasarte horrtan Nibelungoetako kondairaren oroitza dator-kigu, zeren "haren larrua burdina bera bezain gogorra da, armaz ezin zilatuzkoa; ahotik eta begitik baizen ez dakiok deus egin". Aintzinago begiraturik Akiles-engana garamatza. Bestalde, Tartaroak, klasikoen ziklopeak bezala, begibakardun ziren. Hemen, haren kontra jarri zen Ganetxiki hendaiarra Testamentu zaharreko David-en gisa agertzen zaigu, habailez lurrera eraisteko.

---

(7) J. P. ARBELBIDE, *Bokazionea edo Jainkoaren deia*, Lille, 1887.

(8) *Egan*, 1984ko 5-6 zenbakiaren 11-40. orrialdeetan.

(9) Lau liburukitan argitaratzeko prestatu dituenetatik bi agertuak dira: I - *Euskal gaiak* eta II - *Mediku-solas*, Elkarrek emanak 1984 eta 1985ean.

(10) S. MUGICA, "Los Gascones en Guipúzcoa", *Homenaje a Carmelo de Echegaray*, 11. orr. Donostia, 1928. Gai honetaz *Egan*-en argitaratu nuen lantxo bat. Ikus 1986ko 3-4 zenbakiaren 121. orr.

Baina bada ohizko kondairetatik bereizten denik ere. Athano deritzana, adibidez. Pertsonaia hau herriz abiatzen delarik, toki bakoitzeko gizarte giroaren berri ematen digu eta alde horretatik gauza bitxiak agertzen dizkigu.

Liburu honen edukina zehaztu behar banu eten gabeko adibideetan sartu beharko nintzateke, baina irakurle bakoitzak bere adibideak atera ditzake. Hala ere, argibide batzuk eman beharrez aurkitzen naiz izenaren jabe ez den aldizkari batek agertu dituen kaxkarkerien aurrean. Argitalpena pixka bat iluna bada, ez da ortografia gaurkotzea zertan den gauzatzen ez dudalako. Aintzin solasean argi diot Euskaltzaindiak gomendaturiko arauetara jotzen dudala, eta horiek 1968an Arantzazuko batzarretan eman zituenak dira, eta ez beste.

Lana inoiz argitaratu gabea izan bazen, esan beharrik ere ez dago, ez nuen bide hori hartuko. Baina, ortografia zaharra nola erabili zuen jakin nahi duenak hara jo ezinik ez du.

Kontsonante ondoko *h*-ak kentzea bera (izen propioetan ezik), arau haien ondorioa baizik ez da. Hau ez baita edizio kritikoa. Eta, ortografia gaurkotze hori hizkuntza guzietan egiten dena da.

Orrialdeen barrenean atsotitzak direla esanak agertzen diren oharretan ere, argiaren jabe direnen ustez, pekatua egin dugu. Hor ba, pekatari non agertzen den Duvoisin, oharrok ber-berak eginak zirenez.

Holako portaerak behartu nau txosten honen izenburuan Duvoisin kapitaina jartzera, zeren argia dutenok Broussain apezka zela uste bai zuten. Baina, Broussain midikua, izatekotan ere, auzapeza izan zen Hazparnen.

Elezahar berrituak direla diot liburuaren aintzin solasean, hala zioenez, eta arrazoiz gainera, Jon Etxaide adiskide minak *Alos torrea* eleberrian. Bestela, nondik sortu zen eleberria hitza? Hori zen *roman* erabiltzeko erarik jatorrena Piarres Lafitte zenaren ustez. Eta elezaharren iturburuak zer diren kontatzen ez naiz hasiko; argia duenak bidea egin dezala. Gure elezaharren bilduma naharoa Jose Migel Barandiaranen lanetan aurki ditzake.

Alegietako abereak hor agertzen zaizkigu elkarrekin mintzatuz, gertakarietatik kontseilu jarraigarrak eskainiz. Baina baita ere hor daude larabere eta etxe-abereak elkarren arteko dohainak erakutsiz. Baina nork ez du ezagutzen Tartaroan edo Bitartaroan euskal mitologiaren lekukotasunik? Horiez gainera Ithurralabarenean laminek lorratzik? Mariturrik bezalako aurpegiz bere edertasunak eta misterio sakona erakusten baitigu (11). Bestalde, mundurik mundu irtengo den Athano, Grimm anaietan zein gure ahozko literaturan abereak irten ziren bezalatsu.

---

(11) J. M. DE BARANDIARÁN, *Obras completas*, I. tomoa, 1972. (Tartalo eta Torto ikus 223-226. orrialdeetan).

Egituraz, Canterbury-ko ipuinen gisara, edo *Decameron* eta *Heptameron* bezala agertzen dizkigu. Ipuinok, haiek bezala, moralizanteak dira, baina ez Pizkunde garaiko kontzeptuz, baizik erromantikoen garaiko egilea mendearen seme. Bitxitasun horrek bere grazia eta balioa ematen die kontakizunei, eta gure literaturan toki berezia merezi du.

Kontalekua, Baigorriko Etxauz jauregia; eta, urte garaia, artazuriketako. Baina, kontalariak ez dira zazpi, zortzi baizik. Zortzigarrena Etxauzko aitoralaba. Horregatik galdetzen dut ezer ikustekorik ote zuen L. L. Bonaparte printzearekin han egin lehen bilerak. Duvoisin kapitainak printzearekin lehen ezagutza 1856ko Uztailaren 19an egin zuen Baionan, eta handik laster, Abuztuaren 7an egin zuten beste bilera hura, lankide izango zituenekin, Baigorriko Etxauzen. Horren xehetasunak eman nituen duela zortzi urte Bruno Etxenikeri buruzko txostenean (12).

Printzeak, lankide izango zituenekin, ikerketak antolatzean, hemengo laguntzaileek edo Duvoisin berak proposaturik, ipuin bilketazko asmorik erabili ote zuten? Zer nahi ere, printzeari beharrezko zitzaiena, eredu zaharrean oinarritzea zen, euskalkien arteko bereizkuntzak jasotzeko eta denetarako Bibliazko itzulpenekin baliatu zen.

Zazpi-liliak zenbaki magikoz mugatzea intentzioskoa ote? Oroi, astearen egunak zazpi direla eta aste oro zortzitik zortzirakoa; kartetan zazpikoa bereizgarri dela; zazpi hilean datorrela uzta.

Zazpikunak badu zerbait berezi. Klasikoengandik datorkigun misterioa da, zeremonia magikoen alorretan galtzen zaigu bere haria, Frazer-ek zioenez (13).

Juan Mari Lekuonak aditzera eman zidan euskal kanta zaharretan bazegoela horren aztarnarik, zazpigarren muga igaroz beste zerbait bereziagoa lortzeko; horren adibideetariko bat Berdabioren kantetako lehen bertsoa dela:

Horren susmoa hartzen diogu “Amorosa konbentuan” delako kantarren lehen bertsoaren hasieran, zortzigarrena gauza berezitzat agertzeaz:

*Zazpi eihera baditut erreka batean,  
zortzigarrena aldiz etxe saihetsean;* (14)

(12) J. SAN MARTIN, “Bruno Etxenike”, *Euskera*, XXIV (1979), 561-568. orr.

(13) J. G. FRAZER, *The Golden Bough*, 1922.

(14) FR. MICHEL, *Le Pays Basque*, Paris, 1857, 268. orr. (Itzulpen eta oharrez ikus F. MICHEL-A. IRIGARAY, *Poesías populares de los vascos*, Donostia, 1962, 95. orr.

Behar bada aintzinatik fosilduta gelditu dena, apaingarriz erabilia, “Urtsuak zazpi leiho” delakoan agertzen zaigu, Azkueren bildumako hirugarren bertsoan:

*Zazpi errota berri,  
zortzi jauregi zuri:  
orien guziengatik  
nik ez Urtsuara nari. (15)*

Baina, misterioitsuena, Juan Marik aipatu zidan Berdabiorena da. Tradizioak dienez, ontzako urreak falsifikatzen zituen Berdabiok eta horregatik eduki zuten Iruñeko presondegian, non egin zuen hirurehun eta hirurogeitabost bertsoetako kanta, egunero bat osatuz, Manuel Lekuonak zioenez (16). Hara hemen hasierako bertsoa:

*Berdabioren xaldiak  
lau anak ditu txuriyak.  
Salto batian irago zuen  
zazpi estatuko esiya;  
beste bat igaro balu,  
seguru zuen biyiya.*

Zenbaki bitxiok, oraingoz hor gelditzen zaizkigu misterioaren ilunpean.

Behar bada, ez dute ezer ikustekorik nire zalantzak. Gainera, hala beharrezko gerta diteke, ezertariko asmorik gabe. Zeren, bestalde, zer zen *zazpikhun*, Duvoisinentzat? Ikus ditzagun *Bible Saindua*-ren hitzak: “Ene haurra, ez erain gaizkia bidegabearen hildoan, eta hura ez duzu *zazpikhun* uztatuko” (17).

Dena dela, zazpi-lilien ondotik dator zortzigarren bat eta ondo berezia gainera, Etxauz jauregiko aitoralaba denez. Eta erantzun zehatzak hor gelditzen dira edonorrentzat aztergai.

Duvoisin, lehendik gure literaturaren historian idazlerik gorenetakoa bazen, orain, bere ohizko alorretatik kanpora, sorketaz ere lan eder bat burutu zuela jakiteaz, oraindik goragoko maila bat hartzen du, hitz-laxo eredugarria duen *Baigorriko zazpi-liliak* delako eleberri honekin.

---

(15) R. M. AZKUE, *Cancionero popular vasco*, 1057 orr. Eta egile beraren *Euskalerrira-ren Yakintza*, II. tomoko 348. orr.

(16) MANUEL LEKUONA, *Idaz-lan guztiak*, 1978, I. tomoa, 480. orr.

(17) Eccl. VII, 3.